

ZARAUZKO SURF ESKOLAREN
HONDARTZARAKO
ARAUTEGI PROPOSAMENA

Mikel Troitiño Berasategi

Haritz Larrañaga Altuna

2016ko udaberrian

ZARAUZKO SURF ESKOLAREN HONDARTZARAKO ARAUTEGI PROPOSAMENA

Aurkibidea:

1.- Sarrera:

2.- Zarauzko Surf Eskolaren Proposamena:

2.1.- Proposamen Integrala.

2.2.- Eredu posibleak.

2.3.- Eredu Publikoa:

2.3.1.-Udalaren lokalak.

3.- Sistema buru aski bat:

3.1.- Zerbitzuak:

3.1.1.- Hondartzaren garbiketa.

3.1.2.- Sorospen zerbitzuak.

3.1.3.- Zerbitzu publikoak.

3.1.4.- Kirol zerbitzuak.

3.2.- Diru iturriak:

3.2.1.- Egonaldi tasa.

3.2.2.- Udal Surf Eskola.

3.2.3.-Eskola pribatuak:

4.- Laburbilduz:

1.- Sarrera:

Honako hau, Zarauzko Surf Eskolako zuzendari diren Mikel Troitiño Berasategi eta Haritz Larrañaga Altunak Zarauzko hondartza kudeatu eta arautzeko egindako proposamen bat da. Bertan, hondartzako erabilpenaren inguruan Udal arautegian ikusten ditugun zenbait hutsuneen berri eman nahi dugu.

Proposamen hau, herritarrei zuzendutako zerbitzuan eman daitezkeen pausotan lagungarri izan daitekeela uste dugu, edo gutxienez, eremu honetan ekarpen gisa egiten dugun hausnarketa moduan ere uler daiteke. Azken finean, herritarrei begira egindako proposamen bat da, beraz, zalantzarik gabe, herritarrak berauek izan behar dira protagonista eta azken emaitzaren erabakitzaile zuzen eta bakar.

Proposamena Surf Eskolak egin dezakeen ohiko eskaintzaz harago doa eta eredu publikoan oinarri zaingo lukeen proposamen integral bat da. Hiritarren beharrak asetzeko sistema bat proposatzen da. Oinarrizko zerbitzuen eskaintza bermatu eta aldi berean bere burua elikatzeke gai izango dena.

Zerbitzuak urte guztian eskaini beharko lirarteke eta berauek bermatzeko bitarteko gisa, besteak beste udalaren surf eskola bat ere proposatzen da. Zein zerbitzu eskaini eta bermatu beharko lirartekeen eta hauek gauzatzeko zein bitarteko erabil daitezkeen aipatzen dugu.

Egungo ereduak enpresen beharrei hobeto erantzuten die, hiritarren beharrei baino. Izan ere, eredia bera osatzerako orduan enpresak parte hartze zuzena dute, eta hiritarrei berriz ez zaie galdetzen, ez dira haien beharrak aintzat hartzen. Bezero sistema batek eskaintza interesgarriak egin ditzake, baina hiritarrak subjektu gisa bezero hutsak badira, ezin esan daiteke eskeintzen den zerbitzuak egiazko eskaera bati erantzuten dionik, interes partikularren arabera sortutako interesei baizik.

Proposamen honen helburu nagusia buruaskia izango den sistema bat osatzea da, baina badugu beste helburu bat ere, eredu berrien eztabaida azalatu eta eredu berrietara ikuspegia zabaltzea.

2. Zarauzko Surf Eskolaren Proposamena:

Gure proposamena ulertzeko kontuan hartu behar den lehen gauza zera da, ez dela eskolari dagokion proposamen soil bat, baizik eta egungo egoera eta testuingurua kontuan hartuta, proposamen INTEGRALA dela. Hau da, surf eskolatik harago hondartzaren jarduerara oro kudeatzeko gure ustez sistema egoki bat izan daitekeenaren proposamena dela. Alde batetik gure proposamen orokorra legoke eta beste edozein udalerrietarako ere baliagarri izan daitekeena, eta bestetik egun indarrean den udalaren ordenantzen inguruko hausnarketa legoke.

2.1. Proposamen integrala.

Surf eskolek gai honen inguruan egiten duen eskaintza jakiteko, Web orrietan sartu eta ikastaroen salneurriak ikusi besterik ez dago. Erakunde pribatu gisa, harago joateko eskumenik ez duen neurrian, egin dezakeen proposamena ere, bere eguneroko jarduerara mugatzen da, ikastaroak eta beste eskaintzera alegia.

Bestalde, surf eskola batek bere eguneroko jardueran ezinbesteko duen ingurunearen erabilera, hondartza eta itsasoa, ez dira inoiz arautuak izan, eta nola arautuak izan beharko lirartekeen galdetuz gero, eskola bakoitzak bere iritzia eman dezake, baina bere eremu txiki eta partikular horretara mugatuko da, besteak beste, hortik harago ez dagokion eremuetan sartzeko arriskua izan dezakeela pentsa dezakeelako.

Gure ustez ordea, eskola batek ikuspegi zabalagoa izan behar du, eta egiten duen proposamenak, bere eguneroko jardueraz harago, bere ingurunea ere kontuan hartu behar du. Arazoa da, ingurunea kontuan hartuta beste eremuekin topo egiten dugula, eta beraz, beste eremuen nondik norakoak ere nolakoak beharko luketen esatera behartuak gaudela. Beraz, afera behar bezala ikusi eta lantzeko, arazoak identifikatu eta berauei irtenbide egoki bat bilatzeko, eremu desberdinak hartu behar dira kontuan, haien arteko lotura eta elkar egintzak ikusi behar dira eta proposamen bat luzatzerako orduan ere, hau dena kontuan hartuko duen proposamen bat luzatu behar da. Horregatik, Zarauzko Surf Eskolak egiten duen proposamena, proposamen INTEGRAL gisa ulertu behar da.

Hauek dira elkar eragiten duten eta kontuan hartu behar diren eremu nagusiak:

- Hiritarrak eta haien eskubideak: Berdintasun eskubidea.
- Udala eta honek eskaini beharreko zerbitzuak: Denontzat.
- Hondartzaren zaintza, garbiketa eta mantenu zerbitzuak: Denen artean.

2.2.-Eredu posibleak.

Hiru eredu nagusi daude: Publikoa, mistoa eta pribatua.

Publikoa, herrikoia da, berdintasun kontzeptua oinarri hartuta, denei irekia den zerbait adierazten du. Eskubideak berdinak dira denentzat.

Beste muturrean, **privatua** dago. Zutabe nagusia, hitzak berak dioen moduan "pri", propietatea da, jabetza. Norbait, zerbaiten edo norbaiten jabe da. Eskubideak, jabetza daukate, beraz jabetza eskubide guztiak ditu eta hortik kanpo, jabetzarik ez duenak, ez du inongo eskubiderik.

Mistoa, erdibideko zerbait da. Jabetzak bere eskubideak mugatuak ditu, eta jabegorik gabeak, eskubideren bat edo beste izan dezake.

Orain artean gure kostaldean ezagutu dugun eta egun indarrean den eredu, eredu pribatua da. Surf Eskolek eskubideak dituzte eta ia ez dute bete beharrik. Ez dute bete behar duten araudirik, eta ezta mugarik ere. Udalak jar dakizkiokeen betebeharrak ere eredu berean kokatu ohi dira, hiritarren kalterako. Adibidez, udalak hartzen duten ohiko jarrera zera izan ohi da, surf eskolei hondartza erabiltzeagatik diru sari bat eskatzea. Diru saria eskatzeak eragin zuzena du prezioetan eta prezioek, noski, bezeroengan eragiten dute. Eredu honekin beraz, bezeroen (hiritarrak) arteko bereizketa ematen da, soilik ordaindu ahal duenak jaso ahal izango baitu surf ikastaroa.

Gure ustez sistema pribatua, sistema okerra da. Ereduak bereizteak beste beste atomizazioa sortzen baitu eta modu horretan eremu bakoitzak udalarengandik diru laguntza bat espero du, baina udalak ezin ase ditzake eremu guztietako eskaerak. Hondartzaren garbiketak esaterako, ez dio udalari inongo diru sarrerarik suposatzen, gastuak bakarrik, baina egin beharreko zerbait da, eta beste nonbait lortutako diruarekin ordaindu behar ditu eremu bakan horrek sortarazten dituen gastuak.

Beraz, lehen esan bezala orokortasunean, eskaera guztiak asetuko dituen sistema bat osatu behar da, berdintasunean oinarritua, ekonomikoki auto-elikatze gai den sistema bat, buruaskia, udalak eskaini beharreko zerbitzuak ongi beteko dituen, eta hiritarren beharrei ongi erantzun diona, eta gainera efikaza izango dena. Eta hau guztia gutxi balitz, sistema honek benetan aurrerakoia izan nahi badu, hezitzailea ere izan behar du. Beraz, ez da nolana hikoia osatu beharreko sistema, baina, gure ustez, eremu bakoitzeko agenteen inplikazioarekin arazo handirik gabe osatu daitekeen sistema bat da.

2.3. Eredu Publikoa:

Zarauzko Surf Eskolak bere proposamena egiterako orduan eredu publikoa du abiapuntu. Hau da, hondartzako eragile eta eremu desberdinak kontuan hartu eta berauek elkar elikatuko dituen sistema buruaski bat osatzea. Eredu publikoak oinarrian duen berdintasun kontzeptua ipar orratz izango duen proiektu bat du helburu. Surf Eskola batek ordea, berak bakarrik, ezer gutxi egin dezake sistema integral bat aurrera eramaterako orduan, bitarteko eta eskumen oso gutxi dituelako.

Eredu guztiak barnebidu eta berauetan eragin dezakeen erakunde nagusia Udala da, eta gainera horretarako eskumena izan dezakeen ia erakunde bakarra ere bada. Beraz, eredu publiko batetik abiatuta, zer eta nola aritu behar denaren iradokizunak aipatuko ditugu gure proposamenean.

2.3.1.-Udalaren lokalak.

Hiritarren beharrei erantzuteko eta oinarritzko zerbitzuak eskaintzeko udalak duen bitarteko nagusia bere lokalak dira. Udalak itsasbazterrean zenbat lokal dituen eta hauekin zer egin behar den zehaztu behar da. Proposamen hau luzatzerako orduan kontuan hartzen ditugun lokalekin udalak beste zerbait egiteko asmoa izan dezake, baina garrantzitsuena ideia orokorra hartzea da. Horren arabera gainontzeko guztia moldagarria baita. Lokalak bitartekoa bat dira, ez dira inondik ere helburu bat bere baitan.

Hauek dira guk ezagutzen ditugun udalaren lokalak.

- 1)Argiñano azpian, Surf Elkartea. Taulak uzteko eta abar.
- 2)Arraunlarien lokala.
- 3)Sorosleen zerbitzurako lokala.
- 4)Gurutx gorrian, piragua elkartea dagoena, sub gordetzeko.
- 5)Itsas natura zena. Egun konsignarako erabiltzen da.

Komun publikoak, eta antzekoak, ez dakigu udalarenak diren, beraz lokalei dagokienez ezagutzen ditugunei zein etekin atera dakiekeen proposatzen dugu.

Gure ustez, udal lokal bat edo gehiago surflariei zuzendua badago, lokal hori surf elkarteei, udal polikiroldegiko bezeroei eta zarauztar orori ere irekia beharko luke izan, eta ondorioz, lokal berean elkarte desberdinei lekua egin behar zaie. Lokalak, batez ere, erabiltzaileek taulak utzi eta aldagela funtzioa du, baina elkarteek bilerak egin eta gauzak antolatzen ere balio dezake. Elkarte desberdinetako kideek leku berean biltzeak ez luke eragozpenik sortu behar.

Zarautzen, surf elkarte desberdinak daude, izaera oso desberdinekoak, surfa eta mundua ulertzeko modu arraz desberdinak dituztenak, baina udalak lokal bat badu denei irekia behar du. Gero haiei dagokie haien artean konpontzea.

Neguan adibidez, plaiaroen ostean udaletxeko lokalak erabili nahi dituenak aukera hori izan beharko luke, baldin eta edozein kirol elkarte kide dela frogatzen duen txartela erakutsiko balu. Eta berdin beste edozein egunetan ere, surf elkarte ateari irekiak direlarik, kirol elkarteren bateko kideak diren herritarrek aldagelak erabiltzeko aukera izan beharko lukete. Hau, kirol elkarteak indartzeko modu bat ere bada.

Erabilgarriak oinarritzko zerbitzuak lirateke, aldagelak eta komunak kasu. Norbaitek elkarte horretan bere tresneria utzi nahi izango balu edo antzerako beste zerbaite egiteko beste eskumen batzuk beharko litzuzke, elkarte horretako kide eginda edo diru truke lortu ahal izango litzuzkeenak (posible izanez gero noski).

Udal instalakuntzetan irabaz asmoko jarduerak izan behar dituzten (halakorik izan behar badu) bete behar eta erantzukizunak ere zehaztu behar dira. Herritarrei eskaini beharreko zerbitzuak eta abar.

Arlo honetan ere, urte sasoiak bereizi egin behar dira. Udan zerbitzu asko eskaintzen da, baina hortik kanpora ez da deus:

Adibidez:

-Dutxak: Udazken, negu eta udaberrian ere, denentzat irekita egongo liratekeen zenbait dutxa prestatu beharko lirateke. Gutxi batzuk nahikoak dira. Hauek, zeintzuk liratekeen ere adierazi beharko litzateke, txartel baten bidez, edo gutxienez, zein garaitan funtzionatzen duten esan.

-Argiñanoko azpiko lokala: Beste surf elkarteei eta udal kirol erabiltzaileei ere ireki beharko litzaieke...

-Piraguak gordetzeko lokala: Lokal honetan, piraguekin batera beste zenbait itsas kirolerako tresneria gordetzeko aukera aztertu beharko litzateke. Bestalde, udazken, negu eta udaberrian, gutxienez asteburuetan, sorospen zerbitzua eskaini beharko litzateke.

-Itsas natura: Informazio, biltegi eta aldagela gunea izan daiteke. Urte osoan zehar itsasoratzen den edozein herritarrei irekia. Zarauzko hondartzak dituen berezitasun, arrisku eta ondareen berri ematen duen gunea. Urte osoko bainulari eta antzerakoentzako aldagela eta dutxekin, eta itsas kirol elkarteentzako bilgune.

3.-Sistema buru aski bat:

Ase beharreko zerbitzuak ugariak dira, gastuak ere ugariak dira, beraz hauei aurre egingo dien sistema buruaski bat osatzea litzateke egokiena, bere burua hornitzeko gai izango den sistema bat alegia, kanpoko diru laguntzen beharrik ez lukeena eta ondorioz, beste erakunde batzuekiko menpekotasunik gabea.

Hondartzaren garbiketa eta prebentzioa, sorospen zerbitzuak, bainulari eta kirolariei eskaini beharreko gutxieneko zerbitzuak edo oinarritzko zerbitzu publikoak, udalak hiritarrei ziurtatu behar dizkien zerbitzuak dira, baina hauek suposatzen duten gastuei aurre egiteko baliabideak urriak dira, beraz eremu desberdinak bereizi eta bakoitza bere aldetik hornitzen saiatu beharrean, elkar eragin eta lagunduko duen sistema bat osatu behar da, eta horretarako, gure ustez, ezinbestekoa da orain arteko ikusmolde eta eredu pribatua utzi eta eredu publiko bati ateari irekitzea.

Udalak eskura dituen baliabideak kontuan hartuta (lokalak kasu), eskaini beharreko zerbitzuei nola erantzun diezaikeen pentsatzen has gitezke. Hona hemen gure ustez, hondartzako aferei eta zerbitzu publikoei dagokienean kontuan hartu beharreko gaiak.

3.1.-Zerbitzuak:

Jarraian hondartzaren erabilerarekin lotura duten eta gure ustez, kontuan hartu beharko liratekeen zenbait eremu aipatzen dira, haien artean harreman duten heinean, elkar eragin baitezakete. Eremu bakoitzaren gutxieneko diagnosi bat ezinbestekoa da irtenbide orokor bat aurkitu ahal izateko.

3.1.1-Hondartzaren garbiketa.

Orain artean Diputazioa izan da hondartzaren garbiketaz arduratu den erakundea, baina berez, Kostako araudiaren arabera, ez dagokio erakunde honi garbiketaren ardura. Surf txapelketa batean esaterako, marka izen batek (San Miguel esaterako) hondartzan kontzertu bat antolatzen badu, irabazi guztiak bere egiten ditu, baina garbiketaren ardura ez du inork bere egin nahi, eta hor xahutzen den dirua nonbaitetik atera behar da.

Gure proposamenean udalak hartuko luke garbiketaren ardura, eta gainera legez ere hala dagokio. Urte guztiko garbiketa bermatu beharko litzateke, neguan garbitzen ez dena udan lehorreratzten baita. Honekin batera garbiketaz harago, hondartzaren zaintza bermatu beharko litzateke, horretarako bitarteko onena prebentzioa dela kontuan hartuta. Alegia, itsasoko ura eta kostaldea zikintzen duten arazoak identifikatu eta berauek saihestea litzateke helburua.

3.1.2-Sorospen zerbitzuak.

Udalak enpresa pribatuak kontratatzen ditu udako sorospen zerbitzuak betetzeko. Enpresa hauek soilik udako beharrei agiten diete aurre eta askotan, kanpoko enpresak izaki, hiritarren artean mesfidantza sor dezakete. Kanpotik ekarritako enpresa batek, bertako jendearekin lan egin arren, zailtasunak izan ditzake bertako errealitateari aurre egiterako orduan. Hondartzaren berezitasunen ezagutza falta edo euskararen ezagutza falta izan daitezke ohiko hutsuneak.

Gure ustez, bertako jendearekin, udalarekin eta surflariekin harreman egoki bat finkatuz gero, zerbitzua hobetzeko aukerak bikoiztu daitezke. Hala ere, eskaintzak uda sasoi beharrei bakarrik erantzuten jarraitzen du, eta gure ustez, neguan ere, edo udazken eta udaberrian behintzat, gutxieneko zerbitzu batek indarrean egon beharko luke, eta zerbitzu hori, aurrerago adieraziko dugun moduan, surflariek eskaini beharko genuke.

3.1.3.-Zerbitzu publikoak.

Zerbitzu publikoak eskaini eta bermatu behar dituen erakundea udala da. Hiritarren oinarrizko beharrak asetu behar ditu, baina ez udan bakarrik, baita negu sasoi ere, bertako hiritarrek urte osoan erabiltzen baitute hondartza. Komun eta aldagela zerbitzuak eskaini beharko litzuzke udalak, urte osoan zehar, eta noski, eskaintza urte sasoi bakoitzari egokituz.

Udalaren lokalek irekiak izan behar dute, baldintzapean, baina irekiak. Udalaren lokal bat gutxi batzuen erabilerarako mugatzea, gainontzekoekiko errespetu falta da.

Horrez gain, udalak hondartza sarreretan Zarauzko hondartzak dituen berezitasunen eta korronteen berri emango lukeen panel bat jarri beharko luke, edo gutxienez jarrera hezitzaile eta pedagogikoa izan beharko luke bere karteekin, zeren bestela soilik, batere hezitzaileak ez diren ohiko debeku kartelak bakarrik ikus daitezke.

3.1.4.-Kirol zerbitzuak.

Hondartza eta itsasoak, kirol anitz egiteko aukera paregabea eskaintzen dute. Kirola, ez da oinarrizko eskubide bat, baina egun oso errotua dagoen eta garrantzia handi duen ekimen bat da. Horregatik saiatzen da udala eremu honi dagokion aferetan ahalik eta eskaintza zabalena egiten.

Zarauzko hondartza famatua da, batez ere, surf egiteko leku egokia delako. Milaka surflari inguratzen da Zarautza surf egitera eta herrian bertan ehunka dira kirol hau egiten duten hiritarrak. Kirol hau egiten hasteko bitartekoak ordea, norberaren esku egoten jarraitzen dute, ez dago lehen urratsak bermatuko dituen doako eskaintzarik. Eta gehiago esan daiteke, udan etorri ohi den belgikar batek, zarauztar batek baina gutxiago ordaintzen ditu surf ikastaroak. Hau guztia, dudarik gabe, eredu pribatuaren ondorioa da. Zarauztar batek, ezinbestean, surf eskola pribatu baten prezio taula aukeratu beharko baitu.

3.2.-Diru iturriak:

Aurreko atalean ikus daitekeen moduan asko dira ase beharreko zerbitzuak. Hondartzaren zaintza, garbiketa eta sorospen zerbitzuak ordaintzeko, udalak diru iturriak behar ditu, beraz diru sarrerak nondik datozen identifikatu eta berauen arabera, ahalik eta modu justu eta egokienean dirua lortzeko ahaleginak egin beharko lituzke, kanpoko diru laguntzen beharrik izan gabe (diputazioa kasu).

Hondartzaren garbiketari dagokionean, orain artean Diputazioa arduratu da horretaz, baina aurrerantzean diru iturri hori amaitu daiteke, haien ez dagokien gastu bat dela baitiote.

Udako komun publikoak partikularrek kudeatu ahal izan dituzte erabileraren truke prezio bat jarrita eskuratutako diru sarrerei esker.

Sorospen zerbitzuak ordaintzeko dirua beste eremuren batetik dator.

Gure ustez, eremu bakoitzak suposatzen duen gastuari aurre egiteko hiru ideia proposatzen ditugu. Batetik, "egonaldi tasa" deritzona ezartzea eta bestetik, udalaren surf eskola batek sor ditzakeen diru sarrerak erabili eta eskola horrekin gainera, beste zenbait zerbitzutan (sorospen zerbitzuak kasu) gastua murrizteko baliabideak sortzea.

3.2.1.-Egonaldi Tasa.

Agian diru iturri handia ez izan arren lagun dezakeen sistema hau proposatzen dugu, egonaldi tasa. Ipar Euskal Herriko udalerriek turistek ezartzen dieten zerga moduko bat da hau, "Taxe de Séjour" deitzen dute.

Herrialdetik kanpo datorren jendeari zuzendutako zerga txiki bat da. Hotel batean, Kanpin batean edo antzerakoetan egun gutxirako leku hartzen duen bidaiariari prezioan ezartzen zaion gehigarri bat da. Iparraldeko udalerrien kasuan, turistek egin duten erreserba motaren arabera, zerga ere alda daiteke, eguneko 0'20 eta 1,50 euroko tasa izaten da. Hau noski, aztertu beharko litzateke, baina diru sarrera bat izateko ideia bat gehiago da. Bestela, zergatik ordaindu behar ditu zarauzta batek bere udal zergen bidez, turistek ere sortzen dituzten gastuak?(garbiketa, zerbitzu publikoen erabilera eta abar).

3.2.2.-Udal Surf Eskola.

Egun, demanda edo eskaera oro asetzeko eredu bakarra dago indarrean, eredu Pribatua alegia. Beraz, Itsas kirolek Zarautzen duten zabalkundea eta eragina kontutan hartuta, Zarauzko Kirol Udal taldeak, eremu honetan eskaintza publikoa eskaini beharko lukeela uste dugu, polikiroldegia bitartez egiten dituen beste zenbait eskaintzen kasuan bezala.

Udalaren surf eskola batek eskaini beharreko zenbait zerbitzu bermatu ditzake, eta gainera, aurrez aipatu ditugun hondartzaren mantenu eta zaintza zerbitzuen gastuei aurre egiteko diru iturri egokia izan daiteke.

Hona hemen udal surf eskola baten izaera zehazteko erantzun beharreko zenbait galdera.

-Zer zerbitzu eskaini behar du Udalaren gune publiko batek?

Komunetako zerbitzuak doan izan beharko luke.

Konsigna, dutsak eta komunak erabiltzeko aukera zabaldu beharko litzateke, 5€ko kuota baten ordainetan adibidez.

Material biltegi (udal patronatukoentzat + Zarauzko kirol elkarte bateko kide den ororentzat). Eskaintza honek doakoa behar luke, baina hala ez bada, abonua bat egin daiteke, polikiroldegian bezala.

Materialik utzi nahi ez duen bainulari arruntak, udal patronatuko edo elkarte batekoa bada, doako zerbitzua eskuratu luke eta bestela, kasu honetan ere abonua bat egin daiteke, polikiroldegian bezala.

-Zein zerbitzu eskaini beharko luke Udalaren Surf Eskola batek?

10-12 urte bitarteko Zarauzko ikastetxe guztientzat doako talde ikastaroak eskaini beharko lituzke udaberri eta udazkenean. (Bi saio, lau ordu).

Ikastaroak udan. Zarauzko elkarteetatik datozen taldeei prezio berezia. 5€ pertsonako saio bakoitza.

10€ euskaldunei, eta 20€ bestelakoei.

Udalaren eskolak informazio gunea ere izan behar du (Euskal Herriko hondartzak, kirol guneak, surf guneak,

eta abar).

Zarauzko hondartzako berezitasunei buruzko informazioa eskaini, ohiko korronteak, arrokkak, eta abar. Sorosle zerbitzua, batez ere, uda ez, beste urte sasoietan. Botikin egokia eta gutxieneko bitartekoekin.

-Zein helburu ditu Udalaren Surf Eskolak?

Herritarrei surfa eskuragarri egitea.
Surfeko lehen urratsak emateko erraztasunak eskaintzea.
Zarauzko historia eta berezitasunen berri ematea.
Udazken, udaberri eta neguan gutxienezko sorospen zerbitzuak eskaintzea.
Surflari zein hondartzako beste erabiltzaileei biltegi eta aldagela zerbitzua eskaintzea.
Bainularientzako korronteen inguruko aholku eta informazio gunea izatea.

-Zein bete behar ditu?

Eman beharreko eskaintzak gauzatzeko bitartekoak jartzea.
Zerbitzuak urte guztian zehar eskaintzea.

-Nork kudeatu behar du?

Kirol patronatua, sorosle arduradun bat eta surf irakasleen arduradun batek.
Sorosle eta surf irakasleen arduraduna pertsona bera izan zitekeen, baina egun hain daude eremuak bananduta, non arduradun bakar bat izatea zaila litzatekeen.

-Nork lan egin behar du?

Surf irakasleek, sorosleak, garbitzaileak, teknikariak, idazkariak...

-Langileen bete behar eta baldintzak.

Langileak sorosle zerbitzua egiteko prest egon beharko lukete, eta itotzen ari den norbait uretatik ateratzeko pertsona egokiena gehienetan surflaria da.

Ondoezak jota edo istripu baten ondorioz zauriak jasan dituzten pertsonen laguntzeko beste mota bateko jakintza bat behar da, eta hori sorosle profesionalen dagokien lana da. Beraz, sorosleekin izan beharreko harremana garrantzitsua da, baina garrantzitsuena, itotzen ari den pertsona uretatik salbu eta azkar atera eta ahalik eta azkarren ambulatiora eramateko gai izatea da. Horretarako Udal surf Eskolak bitarteko egokiak izan beharko lituzke, ambulatiora azkar joateko ibilgailu egokia, esku-ohea, manta eta antzerako tresneria kasu.

-Guneen sailkapena:

Guneen dagokienean kontuan hartu beharreko gauza bat zera, guneak zehatz markatu arren, azken finean itsasoaz mintzo garela, eta beraz, azken hitza egunero etengabe aldatzen den itsas korronte eta baldintzek dutela. Horrela, itsaski handiak diren egunetan esaterako, bainularien guneak markatutakoa baina murriztagoak izan daitezke, eta kasu horretan, itsas kirolen guneak handiago izango dira, baina baldintza normaletan guneak nolakoak behar luketen ahalik zehatzen markatu behar da.

Bestalde, Zarautzen korronte guneak nahiko zehatzak dira, leku berean sortzen dira. Getariako portua handitu zutenean eman zen aldaketarik gune hauetan, apur bat mugitu ziren, baina gainontzean, ia beti korronteak eremu berean sortu izan dira. Beste kontu bat da korronteen har dezaketan norabide edo forma, baina eremua, ez da asko aldatzen.

Askotan egiten den akats bat da, gizakiak eraikitako guneen arabera eremuak sailkatzea. Sorosleen talaiak esaterako, ez dute guneak sailkatzeko irizpide bat izan behar. Korronte guneak nahiko ongi identifikatuak daude eta hauen arabera sailkapena egon beharko litzateke, ez talaien edo surf eskolen kokapenaren arabera.

Hondartzaren sailkapena egiterako orduan bainularientzako eta surflarientzako eremuen artean desoreka handirik ez egoteko komunitate bakoitzari eremu kopuru bera eskaini beharko litzaioke. Beti ere, uda sasoi orduetaz ari gara, alegia, goizeko 10:30tatik arratsaldeko 8ak bitartean. Beraz, uda sasoi orduetaz, bainularientzako bost gune eta surflarientzako beste bost gune proposatzen ditugu.

Surflarientzako gune aske bat proposatzen dugu, irabaz asmoko jarduerarik gabekoa. Gune hau, udalaren lokal baten aurrean izan beharko litzateke, eta egokiena, surflari gehien biltzen dituen eremua litzateke, udalaren lokalak erabiltzen dituen surf elkartearen parean alegia.

Udalaren eskolek bere gune propioa izango lukete. Eredu pribatuan, eskola pribatuek ere haien zerbitzuak eskaintzeko aukera daukate, baina eskaintza publikoak du lehentasuna. Udalaren surf eskolak beraz, eskola parean izango luke gune propioa.

Gainontzeko guneetan eskola pribatuek ikastaroak emateko aukera izango genuke, baina aurrez eremu bakoitzean zenbat surf taula edo bezero taula izan daitezkeen zehaztu beharko litzateke, horren arabera zenbat surf eskolak lan egin dezaketen eta bakoitzak zenbat bezero izan ditzakeen esateko.

Alokairuak ere kontuan hartu beharko lirateke. Istripu gehien sortzen dituen afera da alokairuena, arriskua sortzen dute eta bezeroak beraiek ere arriskuan izan ohi dira, beraz eskola bakoitzak eremu bakoitzean zenbat taula alokatu ditzakeen eta hauek kontrolatuak nola izan daitezkeen zehaztu beharko litzateke.

Hona hemen guneak sailkatzeko gure proposamena. Berriz ere errepikatu behar dugu garrantzitsuena ideia orokorra dela. Alegia, guk guneak non, nork eta nola erabili beharko litzuzkeen proposatzen dugu, baina guneak alda daitezke, beti ere ideia orokorra kontuan hartuta. Alegia, bainulari eta eta surflarien guneen arteko oreka, surflariantzako gune aske bat, udal surf eskolaren lehentasuna eta eskola pribatuek bete beharko genituzkeen baldintzak.

1. Gunea: Moila - Madoz Kalea (Muskaria). [Bainua]
2. Gunea: Madoz kalea - Matxixako Kalea (Galtxa Gorri). [Ikastaroak, udal surf eskola] 20 bt.
3. Gunea: Matxixako kalea - Etxabe Roke kalea (Katixa). [Bainmua].
4. Gunea: Etxabe Roke kalea – Dama osteko kuboak, (erdiraino). [Ikastaroak] 30 bt.
5. Gunea: Dama – Beraza. [Bainua].
6. Gunea: Beraza – Borgeto. [Itsas kirolak, gune librea].
7. Gunea: Borgeto- Desert hasera. [Bainua]
8. Gunea: Desertu hasera - Desertu A. [Ikastaroak] 30 bt.
9. Gunea: Desertu A – Desertu B (sorosleen talaiia). [Bainua].
10. Gunea: Desertu B – Desertu amaiera. [Ikastaroak] 30 bt.

3.2.3. -Eskola pribatuak:

Egun indarrean den udalaren «hondartzako erabiltzaile eta irabaz asmoko jardunbideei dagokien atala» oinarri hartuta bi hutsune nagusi ikusten ditugu: Batetik, irabazi asmoko jardunbideei dagokion atalean ez da surfaz edo uretan egiten diren irabaz asmoko jardunbideei dagokien atalik, beraz atal bat sortu beharko litzateke, eta bestetik, indarrean den araudian xehetasun batzuk gehitu behar dira.

Atal berri hau sortzeko, gure ustez, lehenik diagnosi bat eskaini behar dugu, gero herritarrei entzun eta haien iritzia kontuan hartzeko galdetegi bat egin behar da. Eta azkenik, irabaz asmoko jardunbideei dagokion atala egin eta araudia berritu behar da.

Garrantzitsuena urte sasoi desberdinei dagokiena dela uste dugu. Adibidez:

-3. artikulua: Antolaketa, zaintza eta osasun laguntzari dagokiona: Ekainaren 1a eta irailaren 30a bitartekoa zehaztuta dago, baina hortik kanpora ere zehaztu egin beharko litzateke.

-4.2. artikulua, “kartelak oharrekin”: Puntu honetan gehiago sakondu behar da, udalak zenbait istripuetan erantzukizunik izan ez dezan eta sarrera guztietan erabiltzaileentzako kartel zehatzak jarri behar dira, baita moilan ere. Frantzian adibidez, negu zein uda, kirolaria itsasoratzen bada erantzukizun osoa berea dela dioten txartelak jartzen dituzte sarbideetan eta soroslerik ez bada, zaintzapean ez dagoen hondartza dela ohartzen dute. Antzerako zerbait egin beharko litzateke, eta ez Zarautzen bakarrik, baita beste herrietan ere. Oraindik ez da ezer grabea gertatu, baina kasu.

Honako galderen inguruan hausnartu behar da:

a.- Nortzuk dira erabiltzaileak?

b.- Zenbat gunetan (bainulari-itsaskirol) banatu daiteke hondartza?

c.- Irabazi asmoko jarduerak zeintzuk dira?

d.- Zenbat itsaskirol gune irabazi asmoko jardunbiderik gabe?

e.- Irabazi asmoko jardunbideak baimendutako guneko zenbat taula-bezero egon daitezke?

Eredu pribatuan ikuspegi publikoak inongo lekuri ez duen arren, alderantziz, eredu publikoak badu enpresa

pribatuentzat ere lekunik, beti ere bete behar eta mugekin. Jarraian, gure ustez, surf eskola edo enpresa pribatuek uda sasoian lan egin ahal izateko bete beharko lituzketen baldintzak azalduko ditugu.

Uda sasoian, goizeko 10:30tatik arratsaldeko 8ak bitartean izango lirake indarrean guneak. Ordu horietatik kanpo gunerik gabeko hondartza edo eremu librea litzateke. Ordu-tegi barnean aldiz, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

-Eskola bakoitzak, aurrez zehaztutako gune bakarra erabiltzeko eskubidea izango du (udako ordutegetan) eta gune bakoitzean izan ditzakeen gehienezko ikasle (20) eta alokairuak (10) kopuruarekin.

-Surf librea edo beste edozein itsas kirol egiteko bi gune proposatzen ditugu. Hor, ordutegi barruan ezin izango da irabazi asmoko ekintzarik egin.

Guztira zenbat surf eskola izan daitezkeen erabaki behar da. Irabaz asmoko zenbat eskakizun dauden jakin eta horren arabera zehaztuko litzateke guneetako eskolen kopurua. Gune bakoitzaren ezaugarriak eta zabalera kontua hartuta bezero-taulen kopurua desberdina izan daiteke. Bezero-taulak diogunean, alokatutako eta ikastaroa egiten ari den pertsona kopurua esan nahi da.

Udako ordutegian lan egiteko baimena lortu dezaketen eskolak aukeratzeko orduan udalak aintzat hartu beharreko irizpideak ere zehaztu egin behar dira eta hauek, interesdunek aurrez jakin behar dituzte. Hona, gure ustez, udalak baimenak ematerako orduan aintzat hartu beharreko **irizpideak**:

- Hondartzako guneetan lan egiteko eskaria egiten duen enpresa bertakoa izatea (x puntu).
- Langileak bertakoak izatea (x puntu).
- Enpresa eta langileen antzinatasuna (esperientzia bilduma) (x puntu).
- Ekintzen proiektua eta instalakuntzak. (x puntu).
- Hizkuntzak. Euskara (x puntu).

Azken irizpide honek enpresak eguneroko erabileran hizkuntzei ematen dien garrantzia, bai ikastaroetan, propagandan, txarteletan, web orrian, edo dena delakoan eragiten du. Zentzu honetan euskarak izango luke lehentasuna eta jarraian, gainontzeko hizkuntzak. Adibidez, euskararen erabilera 10 punturekin baliozkotu daiteke eta gainontzekoak bi punturekin, edo antzeko zerbait, baina gutxienez modu mailakatuan baloratu beharko litzateke. Euskara ez diren beste hizkuntza guztiak berdin balioetsi beharko lirake eta salbuespenen bat egitekotan gertukoena hartu beharko lirake kontuan, hau da, Frantsesa, Gaztelera eta ingelesa, baina hiru hizkuntza hauek ere berdin balioetsita.

Baimena ematen zaion eskola bakoitzak ekarpen bat egin behar du (6.000€), honek ez du derrigor dirutan izan behar, baizik eta Zarauzko ikastetxei ikastaroak doan ematea edo zarauztarrei edo Urola kostakoei %10en beherapena egitea ere. Baina herritarrentzako halako eskaintza edo antzerakorik egiten ez duenak, diruz ordaindu beharko du. Bestalde, udako ordutegitik kanpo lan egin dezaketen eskolek ere ekarpen bat egin beharko liokete udalari, eta hauen kasuan (2.000€). Beti ere iraupena 2urte baino gehiagokoa izan gabe.

4.- Laburbilduz:

Txosten honetan udal taldeak diagnosis egiterako orduan kontuan hartzeko zenbait afera eta proposamen luzatu ditugu. Orain udal taldeari dagokio diagnosis egin eta herritarrekin harremanetan jartzea. Horretarako, diagnosis oinarri hartuta galdetegi bat luza daiteke hartu beharreko erabaki garrantzitsuetan eragin dezakeena.

Galderak eta galdetegia bera nori zuzendua izan behar duen ere zehaztu beharko litzateke. Edonola ere, gehiegi luzatu behar ez den gaia da honakoa. Datorren udan araudi berria indarrean egon dadin 2012ko apirilera amaitua eta onartua behar du izan, beraz araudia gauzatzeko pausuak zehaztu eta datak jarri behar dira eta ez dago denbora sobera.

Eredu publikoan oinarritutako proposamen integral bat luzatzen dugu, orain arteko ereduarekin hausten duena, beraz garrantzitsua ez da proposamena bera aditzera eman nahi den ideia, baizik eta honek zabal dezakeen eztabaida.

Surfak egun duen eragina kontuan hartuta udalak gai honetan eta hondartzari zuzen lotutako beste zenbait eremutan hainbat zerbitzu eskaini beharko lituzkeela esan dugu. Hondartzaren garbiketa, prebentzioa, zaintza, sorospen zerbitzuak, eta zerbitzu publikoak izan ditugu hizpide. Eta hauek sortzen dituzten gastuei aurre egiteko proposamenak luzatu ditugu: Egonaldi tasa, udalaren surf eskola eta eredu pribatuko jardunak.

Udalak surf eskola bat izanda zer nolako zerbitzuak eskaini ahal izango lituzkeen eta nolako izaera izan beharko lukeen adierazi dugu. Honekin batera, hondartzako geneak nola sailkatuko genituzkeen ere esan dugu. Kasu honetan ere, ohiko surf eskola ereduarekin hausten duen proposamena da, beraz berriz ere garrantzitsuen ideia da.

Gure proposamen honetan indarrean den araudian aldatu beharrekoak ere aipatu ditugu. Horrez gain, irabaz asmoko jardueren inguruko atal bat gehitu beharko litzaiokeela esan dugu. Eta atal horri forma emate aldera gure proposamena luzatu dugu.

Surf eskola pribatu gisa, ohiko ereduaz harago bestelako zerbitzuak ere izan daitekeela erakusteko erantzukizuna dugula uste dugu. Beste herrialdeetan gauzak nola egiten diren ikusi eta ikasteko asko daukagu dudarik gabe. Baina, eskola gisa dugun erantzukizun nagusia, gure ustez, bestelako ereduak badirela eta posible direla esatea da.

Orain arteko ereduak ez ditu emaitza onak eman, edo soilik gutxi batzuentzako emaitzak eman ditu. Eskola pribatuak, eta irabaz asmoko beste zenbait enpresa, oso gaizki ohituak gaude, araudiak, hondartza, eta gainerako eremuak gure jardunbideetara egokitu ahal izan ditugu. Udalean izan diren ordezkariekin eskola bakoitzak zuen harreman motaren arabera, lortu ditu enpresa bakoitzak bere eskaera eta nahiak. Bada ordua, hiritar edo bezeroak enpresen interesetara egokitu beharrean, enpresak hiritarren interesetara egokitu gaitzen.

Mikel Troitiño Berasategi
Haritz Larrañaga Altuna
2016ko udaberrian